



JOSU AGIRRE ▶ TXIRRINDULARIA

«Nire lana beti ondo egiten saiatzen naiz eta saria jaso dut»

TOLOSA ▶ Euskaltel-Euskadi taldean egingo du datorren denboraldia txirrindulari tolosarrak

«**POZIK**» ▶ «Maila altuenean ariko naiz eta gainera etxeko talde batekin, amets bat da» ▶ 2

ZIZURKIL ▶

Eskualdeko hiru segalari ariko dira bihar sega desafio erakargarrian ▶ 4,5

JOSE MIGEL ESNAOLA ▶ FRANTZISKOTARRA

«Liburuan Potosi hirian euskaldunek eginiko historia kontatu dut»

Bolivian 15 urtez misiolari lanetan aritu zen frantziskotarrak 'Andre Maria Potosi hirian' liburua idatzi du ▶ 3



N. L.



N. GARZIA

ELENA IRIGOIEN ▶ GARAPEN-AGENTEA

«Xedea enplegua eta bizi kalitatea sortzea da»

Leitzarra Cederna Garalur garapen agentziaren arduraduna da ▶ 7

garenak X2 izateko

lortu ezazu **hitza**ren
harpidedun berri bat

eta **opari bana** jasoko duzue

aukeratu
gustukoen
duzun
oparia



BEZERO ARRETA ZENBAKIA:

902 820 201

hitza
astegunetan: 08:30 - 20:30
larunbatetan: 09:00 - 13:00

JOSU AGIRRE ▶ TXIRRINDULARIA

«Ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz, eta hau, horren sari izan da»

Orbea oreka SDA n bi urtez aritu ondoren, Euskaltel-Euskadirekin egingo du datorren denboraldia Josu Agirre tolosarrak

ESTI EZEIZA

Bi urtetan Orbea Oreka SDA n aritu ondoren, hurrengo denboraldian Euskaltel-Euskadirekin ariko da Josu Agirre (Tolosa, 1981). Urtebeteko kontratua sinatu du txirrindulariak, eta berarekin aurtengo taldea osatutzat eman du Euskaltel-Euskadik. Gustura agertu da albistearekin txirrindulari tolosarra eta esker hitz ugari egin ditu ingurukoentzat.

Espero al zenuen zu izatea Euskaltel-Euskadiren aurtengo fitxaketetako bat?

Espero ez, banekien izen bat zegoela hortik, eta bi aste lehenago edo esan zuten gure taldeko norbait izango zela eta izena eta abizena zituela. Aukerak banituela banekien, baina ez ni izango nintzela.

Eta nola hartu duzu albiste hau?

Oso gustura, azken batean hori nahi izaten dugu. Orain, urtebeteko aukera eman didate eta aprobetxatu egin beharra dago.

Ametsetako bat-edo beteta orduan.

Ez dakit ametsa den, baina bai. Azken batean txirrindularitzako mailarik altuena da, eta gainera etxeko taldean ariko naiz. Beraz bai, amets bat bezala.

Profesionalen egotean, gauzak gogorrago izango dira.

Azkenean, dena bezala izango



INIGO TERRADILLOS

da. Aurten korritu dut beraiekin, eta nabaritzen da, indarra eta hori dena. Baina urtetik urtera badakizu nola hobe entrenatu, zer egin, nola jan eta zer gehiago egin behar duzun. Azken batean, dena zerbait gehixeago izango da. Zeren eta, gu askotan ibili izan gara beraiekin, eta gutxi gora behera badakit nola doan gauza. Azken batean gehiago saiatu beharra daukazu.

Prestakuntza aldetik, zertan aldatzen da?

Nik uste, azkenean orduak

izango direla. Kalitate mailan behintzat gehiago eman behar dugu, kilometro gehiago, serie gehiago, eta azken batean ordu gehiago.

Zein ezaugarrietatik uste duzu izan zarela aukeratua?

Ez dakit, maila bat emateko eskaini dezakedan laguntzagatik agian. Oraindik ez dut hitz egin beraiekin honetaz. Bestalde, nik erakutsi dudana erregularitasuna taldeari laguntzeko ongi etorriko delako. Dena den, taldea laguntzeaz gain, zure etapa osatzeko aukera baduzu, hobe.

Zein da zure ustez duzun oharrik nabarmenena?

Erregularitasuna agian, eta beraintzat, laguntzeko prestutasuna. Denboraldia nola hasten den ikusi beharra dago. Ongi hasiz gero agian aukera izango

dut zerbait egiteko. Azken batean, denborak jartzen zaitu zure tokian, eta hor ikusten da.

Denboraldi honi begira, zeintzuk dira zure helburuak?

Etxe lasterketetan hartu nahi dut parte. Euskaltel-Euskadinean egotean, talde bezala, lasterketa onenak korrituko ditut. Dena den, ikusi egin behar zein taldean sartzen didaten. Orokorrean, gehien nahi dudana beraiek gustura geratzea da. Beraiek eskatzen didatena ematea, eta ahal bada gehiago ere bai. Azken batean, beraiek gustura badaude, zu ere hala egoten zara, eta beste urtebeteko geratzeko aukera izaten duzu.

Talde bezala, nola ikusten duzu Euskaltel-Euskadi?

Aurten oso indartsu dabilta eta denboraldi polita egin dute. Beraiek esan bezala, ziklo bat egiten ari dira eta horren arabera ari dira gauzak ateratzen. Eta aipatutakoaren arabera, hurrengo urtean gauzak hobeto joango dira, orokorrerako begira. Bestetik, nik talde bezala indartsu ikusten dut, aldaketa handia eman du eta ikusi da nola ibili diren, bai Tourrean, bai Espainiako itzulian, eta orain mundialean.

Orbea Oreka SDA taldean egindako bi urteen inguruan, zer balantze egiten duzu?

Esperientzia bezala oso polita izan da. Dena den, joan den urtean, denboraldi erdian istripu bat zela eta min hartu nuen eta aurten kosta egin zait. Gustura nengoan, baina ez horrenbeste, jendea nirekin pozik egon arren, nik gehiago espero nuen. Hala ere, saitzin zara ahalik eta hobekien egiten eta horren sari bezala hau izan da.

KALE KANTOITIK ▶
JOXEMI SAIZAR

Izerdi patsetan denak

Milaka mendizalek mila izerdi tanto bota ditugu irailean zehar. Erniora igotzen urteroko ohitura berritzeko: mendi buelta egin, koloretako zintak erosi, uztaiak gorputz osotik pasatu, salda eta txorixoa Zelatuenen, erromeria... Gustuko tokian aldaparik ez. Hori bai triatloiala!

Gaur gauean ikusi ahaliko den Bota patsa! izeneko antzezlanean (animatu, bi mutil hauek ikustera, merezi dute eta) baino izerdi gehiago bota zituen Joseba Usabiagak duela gutxi Aizkorriko mendiko maratoina. Aktore gutxi izango dira mundu osoan horrelako proba burutzeko gai.

Izerdi tantarik bota gabe, egun argiz, inor konturatu gabe, lapurtu dituzte milaka metro telefono kable aste honetan Amezketan, eta beste zenbait herritan. Telefonía mugikorrek konpainiak gustura egongo dira, baina internet, fax eta telefono fin-koko erabilzaileak hamarkada batzuk atzera egin dute XXI. mendean. Aspaldi bota zuten Laboak: komunikazio-informazioa.

Kantu maratoiaren lehen metroak egin genituen igandean, Voces 8 abesbatzaren eskutik. Ahotsaren instrumentua horrela menderatzen duten abeslari asko entzutea zaila izango da hilairen bukaeran tolosaratuko diren munduko gutziko abestaldeetan. Listoia oso goian jarri dute britainiarrek.

Beste hainbeste ekitaldi bezala, datorren hileko babarrunaren festaren antolatzailerak esfortzu eta izerdi ugari bota beharko dute dena aurrera ondo ateratzeko.

Feriallekuko bazkariarekin batera, beste lekale (garbantzu, dilista, baba...) festa izango da Zerkausan. Donostiako gastronomia azokara etorriko den jendearekin. Gironako Bulli jatetxe ospetsuko Ferran Adria sukaldaria ere bertan izango dela zabaldu da kalean. Ez da marka makala! Kuriositatez, begira ezazue Zerkausan egun hauetan jarrita dagoen udal bandoa: debekatuta dago denbora asko pasatzea bertan, alkohola edatea, jana-riak prestatzea, musika eta soinua ateratzea... Orduan, nola egingo dute?

bota patsa

urriak
5
ostirala
20:00

TOLOSA

LEIZOAN

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

JOSE MIGEL ESNAOLA ▶ FRANTZISKOTARRA

«Euskaldunek Potosi hirian gauzatu zuten historia kontatzen dut liburuan»

Egun Tolosan bizi den frantziskotarrak 'Arantzazuko Andre Maria Potosi hirian' liburua idatzi du

IÑIGO TERRADILLOS

Urte askoan misiolaria izandakoa da Jose Migel Esnaola (Azpeitia, 1934) frantziskotarra. Hain zuzen ere, 1961ean joan zen misiolari gisa Copacabana (Bolivia) eta bertan 15 urte egin zituen. Ondoren, Euskal Herrira bueltatu zen, eta Donostiako Herri Ametsa ikastolan irakasle bezala aritu zen 15 urtez. Gaixoaldi bat izan zuen, eta egun Tolosako San Frantzisko komentuan bizi da. Bolivian igarotako urteetarik esan daiteke idatzi duela *Arantzazuko Andre Maria Potosi hirian* liburua.

Zer kontatzen duzu liburuan?
Euskaldunek, halabarharrez ibiltariak izanik munduan zehar, eta XVI. mendean hasita, gizaldiz-gizaldi Potosi (Bolivia) hirian gauzatu zuten historia da, Arantzazuko Andre Mariaren Ermandadea (kofradia) oinarritzat hartuta.

Nola osatu duzu liburua?
Copacabanan bizi izan nintzean bildutako eta Euskal herrian nintzela ere eskuratutako dokumentuez baliatuta osatu dut. Behin Euskal Herrian gaixoaldi luze bat izan nuen, baina zorionez, susperraldia izan dut lan hau burutu ahal izateko Arantzazuko Andre Mariaren omenez. Urte ugari eman ditut liburua osatzeko dokumentuak aztertzen, baina, izan dudana laguntza handia izan da, eta eskertu beharra daukat.

Nola ohartu zinen euskaldunak eta Potosi hiriaren arteko loturaz?

Bolivian misiolari bezala nen-



N. LATABURU

goela, 1961.ean izan nuen Potosira joateko aukera. Hango eliza eta bisitatzen ari nintzela, irudi bat ikusi nuen. Arantzazuko Ama Birjina zela esan zidaten. Nik ez nuen ordura arte haren berri, eta lanean hasi nintzen, aztertzen. Zilar-Cerroaren ezagutza eman zenean, 1545. urtean, euskaldunak bertan zirela frogatzen zuten dokumentuak topatu nituen. Alofiako Ama babes zutelarik, azkar batean Ermandadea eta kapera eraikitze lanak burutu zituzten.

Paper garrantzitsua izan zuten, beraz, euskaldunek.

Bai, garrantzi handiko jendea izan ziren euskaldun asko. Villa

imperial de Potosi 1547an jaiotzen. Ezerezetik, Amerikako herririk handiena izatera iritsi zen, 120.000 bizilagun izateraino, 1600. urtean. Cerroko zilar-zuria gaurko *urre beltza* edo petrolio bezala kontsideratzen zen orduan, eta horregatik bildu zen hainbeste jendea han. Hamaika naziotako jendea zegoen zilar ustipen lanetan, eta tartean euskaldunak. Garaiko dokumentuek diote euskaldunek Villa Imperial de Potosi bostere ekonomiko-sozialak kontrolatu zituztela, eta Arantzazuko Andre Mariaren debotzioa indarrean jarri ere bai, 300 urtez. Euskalduntasuna ere biziki aitortu zuten.

GUTUN@K ▶

Berazubiko festen inguruan

Ez dakit gogoratzen garen baina urrian sartu eta Pilarikako Ama Birjinak eskaintzen digun *jai* eguna eta asteburua aprobetxatuz urtero Berazubiko festak ospatzeko garaia iristen da. Aurten, Berazubi inguruan ibiltzen garen talde batek urriaren 11, 12, 13 eta 14an egitarau bat antolatuko gogoia genuen eta martxan jarri ginen.

Festak prestatzen jardun duen talde hau, batzuek ez badute ulertu nahi ere, auzoko festa *arrunt* batzuk ospatzeko gogoia duen pertsona ezberdinez osatuta dago (inongo *interes material* jakinik gabe eta inongo *kalterik* egin nahi gabe). Liskarrak liskar, talde honetan auzoan bertan bizi diren bizilagun batzuen partehartzea izan da, baina honetaz gain, Berazubin aurkitzen diren gazte lokaletan mugitzen garen herriko gazte batzuk ere bai; nahiz eta auzoan bertan ez bizi, festa hauek egiteko ilusioa daukagu, eta ez da hain arraroa.

Aurreko urteetako festen antolakuntza eta emaitzak alde batera utzita, aurten festa hauek antolatzen jardun dugun batzuk, gure *helburu* eta *interes* berri ematera *behartuak* egotera iritsi gara. Hasteko, gauzatxo bat esan nahi dugu, gure gogo bakarra (hortik ateratzen baita beste guztia) aurten Berazubin auzo guztiak, auzokide zein herritar guztiak (txikiak zein helduek),

festez gozatzeko aukera edukitzea besterik ez da funtsean. Gazte lokalen artean eta auzoko nahiz herriko hainbat pertsonen laguntzarekin festen inguruan hitz egin ondoren, auzokoei gure laguntza eskaintzea pentsatu genuen, eta azkenean auzokideen gehien-goaren oniritziarekin eta laguntzarekin, festak gainean ditugu.

Festak aurrera eramatea, lana ez, gustukoa izan da guretzat, ondo pasatzeko aukera izango baitugu auzoan bertan eta geure artean egindakoa denontzat izango baita. Egitaraua, gure lana ez, auzoko, herriko eta inguruko hainbat pertsona eta talde ezberdinen (musika, antzerki, elkarte...) laguntzarekin osatu dugu. Bertan uren, gazte eta ez hain gazteentzat saioak egotea da gure *helburu bakarra*, auzokoen nahia kontuan hartuta betiere.

Azkenik, eskerrak eman Izaskungo auzoan festak aurrera eramateko ilusioa erakutsi duten guztiei, gu guztiok animatzeagatik. Hauek pasata, Berazubiko txanda iritsiko da eta ondoren San Esteban auzoan... izango da festa! Gure partetik Berazubin urriaren 11, 12, 13 eta 14an ondo pasatzera eta burutuko diren ekintza ezberdinetan parte hartzera animatzen zaituztegu, Tolosako auzoetako festen etorkizuna eta osasuna guztion esku baitago. Auzorik ez festarik gabe!

ARATZ GARMENDIA ETA BERAZUBIKO
GAZTE LOKALETAKO ZENBAIT
GAZTE ▶ TOLOSA

ALBIZTUR ▶

Festen balorazio bilera, gaur udaletxean

Jai batzordeak deituta, bilera izango da, festen balorazio egiteko. Batzarra, gaur izango da, 21:00etan, udaletxeako pleno aretoan.

ALEGIA ▶

Su ta Gar taldearen kontzertua, bihar

Su ta Gar taldearen kontzertua izango da bihar, Gaztetxean. 23:00etan hasiko dira zuzenekoarekin Eibarko taldeko musikariak.

urteurrena ▶

Periko

1979ko urriaren 5ean 24 urte zituela hil zuten

Alferrik hil hinduten, Periko: borroka eten ez baitzuten. Ez hintzen, ordea, alferrik hil, Periko; borroka ez duk eten.



Hirekin zorretan

hilberria ▶



Luciano Etxabe Zulaika

Urriaren 3an hil zen, 58 urte zituela.

IRUTXULOKO HITZAREN lankideen partez, doluminak eta besarkada bat familiari eta bereziki Xabierri.

TOLOSA ▶ KULTURA

'Bota Patsa!' ikusteko aukera egongo da gaur Leidor aretoan

Joseba Usabiaga eta Iker Galartza euskal aktoreek beraien azken antzezlan eskainiko dute 22:00etan Leidorren

ASIER IMAZ

Bota Patsa! antzezlan ikusteko aukera egongo da gaur 20:00etan Leidor aretoan. Txalo produkzioaren eskutik. Sarrerak Servikutxa, Telekutxa eta www.kutxa.net-en jarri dituzte salgai. Leidor aretoko leihatilan ere sarrerak erosteko aukera izango da gaur.

Joseba Usabiaga, *Goenkaleko Tximista* eta Iker Galartza *Vaya Semanitako* aktoreek parte hartzen dute *Bota Patsa!* antzezlanean. Bi tolosarrek idatzi eta antzeztzen duten antzezlan, aurretik egindako *Erreleboa* obra bezala, komedia kutsukoa da. Lehen lanaren arrakastaren ondoren, bi aktoreek elkarlanean jarraitzea erabaki zuten.



Joseba Usabiaga eta Iker Galartza euskal aktoreak. ANDONI CANELLADA

Izertia eta umorea

Izertia izanik obrari izena ematen diona, gimnasio batean kokatu dute istorioa. Artista izan nahi duen ikasle bat eta enpresario bat elkartzeko dira bertan eta batak besteari etorkizunerako asmoak kontatzen

dizkio. «Bizitzan zerbait lortzeko ekintzailea izan behar zarela da mezua, izertia, patsa bota behar dela», azaltzen du Joseba Usabiagak.

Mezu hori komediarekin uzartzen dute, bi aktore tolosar hauei ondo egokitzen zaien generoa. «Nik uste dut joaten di-

renak ondo pasatuko dutela», dio Usabiagak. «*Erreleboa* gustuko izan zutenek, *Bota patsa!* ere gustuko izango dute», gaineratzen du.

Bi euskal aktoreen lana ikusi nahi dutenek beraz, 22:00etan Tolosako Leidor aretora gerturatzera besterik ez dute.

LEABURU-TXARAMA ▶ GIZARTEA



Jubilatuaren Eguna ospatu zuten igandean

A. Imaz ▶ Urtero moduan, Leaburu-Txaramako jubilatuak euren eguna ospatu zuten iragan igandean. Udalak antolatutako eguna eta hauek eskerrak eman nahi izan dizkie, alde batetik parte hartu zuten eta bestetik, «ospakizun horretara-

ko laguntza eman zutenei». Leaburu-Txaramako Jubilatuaren Eguna, udalerriko 50 jubilatu inguru elkartzu ziren, elkarren artean kontu zahar eta berriak eguneratzeko, egun alai bat pasa zutelarik. HITZA

IBARRA ▶

Aramendiren urteetako argazkia gaur

Ekaitz Aramendi euskal preso ibartarrak urteak betetzen ditu urriaren 9an. Ibarrra Herri Ekimenak argazkia aterako du gaur herritarrekin Ibarrrako plazan 19:30ean. Aramendik 28 urte beteko ditu eta Herri Ekimenatik, herritar guztiei deialdia luzatu die egun jakin honetarako aterako den argazkian parte hartzeko gonbidatuz. Bertan Elkartasun Eguneke balorazioa egingeko hilaren 8an bilera egingo dela jakinaraziko dute.

IBARRA ▶

Kilometroetarako autobusa Gaztetxetik

Ibarrra Gaztetxeak Bergarara joateko autobusa antolatuko du. Hilaren 7an, igandean, Bergaran kilometroak ospatuko dira eta autobusa 09:00etan irtengo da Kultur Etxe aurretik. Gaztetxeak jaiaren parte hartu eta ikastolei laguntza emateko, autobusa jartzea erabaki du. Izena emateko zerrenda Sendi Ekintza tabernan jarri dute. Herriko ikasle eta langabeteak, 5 euro ordaindu behar dituzte eta langile nahiz ibartar ez direnek 9 euro.

IBARRA ▶

Matrikula zabalik kultur lantegietan

Ibarrra Udaltza Kultur Batzordeak antolatutako lantegietan izena emateko epea oraindik zabalik dago. Ikastaroen artean, Aretoko Dantzak, Makilajea, Errestaurazioa eta Pintura aurkitzen dira. Ikastaroak kurtsu osokoak dira eta 120 eurotik 150 eurorako kostua dute. Izena eman nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak, Ibarrra Kultur Etxera joan beharko du edo 943 670399 telefono zenbakira deitu.



2006. urteko eskulana. E. ZEIZA

OSASUNA ▶

Gripearen aurkako txertoa Ibarrraldean

Abian da Ibarrraldean gripearen aurkako txertoa. Kanpaina hilaren 31n amaituko da eta Ibarrra, Lizartza eta Berastegin egunero egongo da jartzeko aukera. Txaraman hilaren 9an, asteartean, izango da aukera, 10:00etan. Leaburun berriz bi egun berandago, 11n hain zuzen ere. Belauntza, Orexa eta Elduainen, hilaren 17an kontsultako orduan eta Elduan berriz hilaren 18an. Gaztelun ostegunero jartzeko aukera egongo da.

OSASUNA ▶

Gaztelu eta Leaburun hitzaldiak

Uli Mankomunitateak antolatutako osasunari buruzko jardunaldietako hurrengo saioak Gaztelu eta Leaburun egingo dituzte. Hilaren 8an, astelehenean, Gazteluko herri elkarteak *Kontsumo iraunkorra, kontsumo arduratsua* aztertuko dute 18:00etan. Leaburun aldiz, gai bera izango dute hizpide hilaren 9an, asteartean. Kasu honetan 17:00etan elkartuko dira liburutegian.

PILOTA ▶

Aurrera-Saias eta Zazpi-Ilturriren partidak

Gaur Aurrera-Saias pilota eskolak dauzkan norgegiogak hauek dira: Bidanien 19:00etan bi jokatu dituzte, eta 21:00etan Beotibarren beste bi, eta lehena Zazpi-Ilturriren aurka, seniorren mailan. Bestalde, gaur 21:00etan Amezetan, Zazpi-Ilturrik hiru maila ezberdinetako partidak jokatu ditu. Seniorren mailakoa Aurrera-Saias en kontra izango da. Bihar berriz, 17:00etan nagusien mailako bi partida izango dira.

ELENA IRIGOIEN ▶ CEDERNA-GARALURKO GARAPEN-AGENTEA

NAIARA GARZIA

Deszentralizazioa, hau da, erabakiak goitik hartu ordez (hiri-buruetan, adibidez), behetik hartzea, zonalde eta herri bakoitzean, eta herrietan lana bultzatzea. Helburu hauekin sortu zen Cederna-Garalur duela zenbait urte. Honen barruan dagoen garapen-agentziak Elena Irigoien (Leitza, 1977) arduratzen da Leitza, Lekunberrin eta Larraintzarren.

Garapen-agentziaren helburua zein da?

Enplegua sortzea eta bizi kalitatea hobetzea. Horri erantzuna emateko zonalde bakoitzeko garapen-agentek ahal duena egiten du. Zonalde bakoitzak bere berezitasunak ditu eta gure lana berezitasun horiei egokitzen da. Guk garapena herritik sortzea nahi dugu, herrian dauden baliabideak aztertu eta bultzatu, eta hauek jendearentzako diru-iturri bat izan daitezen lortu, jendeari bizi kalitate bat eskaintzeko eta orduan jendea bertan gelditzeko. Praktikan gauza asko egiten ditugu, gauzak honera hurbiltzen ditugu, baina aldi berean gauza askotan zonaldeko ordezkariek gara. Gero Udal bakoitzarekin proiektuak aurrera eramateko lan egiten dugu.

Garapen-agentziak diru zenetik aldaketak izan ditu?

Bai, hasiera batean Europatik heldu ziren diru laguntzak kudeatzeko sortu zen, baina gaur egun, hori baino askoz gehiago da: laguntza tekniko bat da. Jendea gehienbat zer diru laguntza dauden galdetzeko etortzen da, baina nik ikusten dut informazio hori eman baino zerbait gehiago egin dezakegula, laguntza tekniko gehiago eman diezaikegu udaletxei, eta sustatzaile pribatuei ere. **Negoio propio bat martxan jartzeko laguntza eske heldu direnean, elkarlanean jarduten duzue?**

Nik diru laguntzak aipatu ondoren, sustatzaileari berak behar duen heinean laguntzen diot, eta berak nahi duen punturaino, batzuk ez baitute nahi izaten beraien gauzetan sartzea. Enpresa bat sortu nahi duen sustatzailearekin hitz egiten duzunean zer behar dituen ikusten duzu, eta gure helburua behar horiek betezea da.

Enpresa bat sortzeko sustatzaileek zer jakin behar dute?

Nik beti esaten diet enpresa bat sortzerakoan hiru adar hartu behar direla kontutan: bat da lana bera. Gero enpresaria izan behar duzu, eta azkenik komertzial edo saltzailea, zure lana saltzeko. Ikusten badut zerbaitetan motz dabile-



N. GARZIA

«Etorkizuna herritik bertatik lana sortzean datza»

Elena Irigoien Cederna-Garalurko garapen-agentziaren arduraduna da Leitza, Lekunberrin eta Larraintzarren

la, arlo hori lantzea gomendatzen diot, ikastaroren bat egi-tesa esaterako, eta honen inguruko informazioa ematen diot. **Leitza mendialdeko herria den heinean, nola ikusten duzu?**

Enpresa bat sortu nahi duen langilearen profila zein izaten da orokorrean?

Normalean izaten da pertsona bat arlo berean beste norbaiten kontura lan egiten duena, eta lan bera egiten jarraitzeko erabakia hartzen du, baina bere kontura. Normalean lana nola egin oso ongi dakite, baina ez daukate ideiarik ere enpresa nola kudeatu behar den eta are gutxiago bere lana nola saldu behar duten. Enpresa bat sortzen duzunean, autonomia izan arren, enpresarioa zara, eta hori azpimarratzen diet. Jendeari enpresario hitzak beldurra ematen dio, baina horrela da.

Jendeak enpresan aldaketak egin nahi baditu ere zuengana jo dezake informazio eske. Bai, saltokiak berritzea diru laguntzak badaude, eta infor-

mazio hori eman dezaket, baina eskaintzen den zerbitzu bat izan arren, jendeak oso gutxi jotzen du gugana horretarako.

Leitza mendialdeko herria den heinean, nola ikusten duzu?

Nik Leitza ikusten dut saltoki aldetik eskasia dagoela, eta ez da hain herri txikia. Merkataritza bultzatzea garrantzitsua da, baina jendeak sentibilizatu egin behar du ideia horrekin. Herritarrak horretaz konturatzeta nahiko nuke. Hipermerkatu batera joaten gara merkeago delakoan, baina gero gasolina gastatzen duzu, zerbait hartzen duzu... Ez dugu ikusten zerbitzu horiek hemen izatearen garrantzia. Ez baditugu erabiltzen galdu egingo dira.

Leitza jende askok kanporatu behar izaten du lan bila.

Bai, eta horrek kezkatu egiten gaitu, bai ni bai Udala. Lekunberriko industria guneak lana sortu du, Leitzakoak ez bezala. **Areson Elutseder handitzen ari dira. Lana ekarriko al du honek bertara?**

Bai, lana ekarriko du, gainera Areson bertan ia ez dago lan-gabeziarik, beraz Leitza jendea ere hartuko dute.

Aresorentzat beraz aurrerapausu bat da zentzu horretan?

Bai. Leitza ordea zaila da, industria gune gehiago egiteko ez dago lekurik. Kanpotik enpresak etortzea itxaron ordez, hemengo enpresak nola bultzatu pentsatu behar da eta ez dira behar bezala bultzatzen. Gaur egun enpresa bat jartzeko dauden diru laguntzak oso murriztak dira eta arauak, oso zorrotzak.

Jendea enpresa bat irekitzera animatzen da?

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Begiradak. Gure webgunean sartu eta *Begiradak* izeneko atalean eskualdeko gai bateratuak topatuko dituzu.

Hori garbi ikusten da Lekunberrin. Denbora gutxian herria ia bikoiztu egin da, eta zeuden zerbitzuak orain ez dira nahikoak. Nabaritzen da jendeak zerbait jarri nahi duela. Eta Leitza jendeak ere Lekunberrin enpresak jarri ditu. Han mugimendua dago, baina Leitza kostatu egiten da, 3000 biztanletako herri bat izan arren.

Zergatik?

Gaur egun helburua funtzionarioak izatea da, soldata finko bat nahi dugu, 8 ordu lan egin eta etxera joan, eta gainerakoa aisia izan dadila. Enpresa bat sortzea bestelako istorio bat da. Ez da soilik Leitza zaila dela, orokorrean, Nafarroan behintzat, burua beste gauza batean daukagu. Izpiritua saiatu eta lehiatsua bultzatu behar da.

Aldez aurretik enpresa bat errentagarria izango den edo ez jakin daiteke?

Kasu bakoitza aztertu behar da. Oso garrantzitsua da zer inbertsio egin behar duzun, ea lokala zurea den edo ez, zer egingo duzun horrekin, ze produktu mota salduko dituzun, ze bezero izan ditzakeen, ze prezioetan salduko duzun... Gauza asko aztertu behar dira. Nik ezin dut esan enpresa bat errentagarria den edo ez, ez dago arau orokorrik.

Europatik datozen diru laguntzak nolizait amaituko direla uste duzu?

Bai, denborarekin Europako diru laguntzak murriztu egingo dituzte, eta gai horrekin pixka bat moztu egin nahi dut. Nekazariak adibidez orain arte diru asko jaso dute eta jada hori mozten ari dira. Nik uste jakin behar dela denborarekin ikasi dugula lan egiteko forma bat eta hori eskaini dezakegula.

Etorkizuna nola ikusten duzu?

Etorkizuna herritik bertatik lana sortzean datza. Lehenago kanpoko enpresaren baten zain egoten zen jendea, baina orain hau gero eta gutxiago gertatuko da. Enpresa handiak eskulana beste leku askotan askoz ere merkeago daukate, eta ondorioz ez dute honera jotzeko beharrik.

iragarki laburrak ▶**SALGAI**

Etxebizitza. Zabalaretan lorategian 67 m²ko ebenezitza. 2 logela eta bainugela bat. 619 55 61 54.
Estetika apaingailuak. Solarium horizontala, ilea behin betirako ezabatze eta kamila. Deitu 660 05 76 05era, 16:00etatik 20:00etara.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urriaren 5a, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

beroena 19 hotzena 16

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(balantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alkiza. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Alkizako jubilatuentzat irteera antolatu du urriaren 17rako, asteazkenarekin, Treviño, Frias eta Miranda de Ebrora. Izen-ematea Aiztondoko bulegoetan egin daiteke (943 693930 telefono zenbakian) 18 eurotan.

Bidegoian. Iñaki Alberdi auto gidariarekin hitzaldia izango da balio anitzeko gelan, Kultur Astearen baitan. Ondoren, 21:30etik aurrera Kontzejuan afaria izango da. Afarirako txartela erosi behar da.

Leitza. Arkupeak jubilatutako elkarteak Kubara irteera antolatu du urriaren 19tik 29ra, La Habana, Varadero eta Cienfuegos bisitatzeko. Izen-ematea, elkartearen (1.865 euro).

Tolosa. Joseba Usabiaga eta Iker Galartza aktore tolosarrek *Bota patsa* antzezlanaren aurkeztuko dute Leidor aretoan 20:00etan.

Tolosa. Urriaren 12an, ostiralarekin, bertso-afaria antolatu du Udaberri dantzari taldeak bere 50. urtemugan, Zerkausian, Egaña eta Arzallus bertsolariarekin. handienekin lehiatzen da. Sarrerak salgai Garikano, Kimetz eta Zumbeltz dendetan 20 eurotan.

Tolosa. Abesbatza Lehiaketarako abonoak salgai daude Tolosako Ekinbide Etxean (CIT) 60 eurotan. Sarrera solteak 18an jarriko dira salgai. Servikutxan eta Kutxaneten ere erosi daitezke.

Tolosa. San Esteban auzoko herri krosa urriaren 12an izango da, datorren ostiralean. Izen-ematea Shanti Kirolak-en eman daiteke.

ZINEMA

Tolosa. *El ultimatum de Bourne* filma emango dute Leidor aretoan 22:30etik aurrera.

ERAKUSKETAK

Alegia. Paisaiak lantzen dituen Rufino De Toro margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan. Asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar daude.



Abesbatza Lehiaketarako bonuak salgai

TOLOSA ▶ Atzerako kontaketa hasi da aurtengo Abesbatza Lehiaketarako. 39. edizioa izango da eta ikusle bezala emanaldiak ikusteko bonuak dagoeneko salgai jarri ditu Tolosako Ekinbide Etxeak (CIT), 60 euroren truke. Sarrera solteak, berriz, hilaren 18an, ostegunarekin, jarriko dituzte salgai. Servikutxan eta Kutxaneten ere erosi daitezke. Iaz

jendetza bildu zuen abesbatza lehiaketak eta Errusiako Wesna Children's Choir taldeak —irudian— eraman zuen Sari Nagusia. Hilabete eskas itxaron beharko dugu aurtengo irabazlea zein izango den ezagutzeko. Ziru lehia estua izango dela, izan ere, antolatzaile eta ikusleek «urtez urte kalitatearen igoera» azpimarratzen dute. NEREA LIZARTZA

Belauntza. Igandera arte, 17:00etatik 20:00etara zuhaitzetako onddoei buruz argazki erakusketa ikusgai jarri dute Belauntzako Kultur Etxean. Joxe Manuel Lekuona Aranzadiko Zientzia elkarteak mikologoak osatu du erakusketa; aditu nahiz zaletuei zuzenduta dago.

Tolosa. Aitor Tejeriaren margolanak ikus daitezke Sorron marko dendan (Korreo kalea).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
 Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
 09:00-13:00. Orduoro *Info 7* irratik albiste aurrerapena.
 11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotsa*. 13:00etatik 13:30era, *Info 7*ko albistegi nagusia.
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Hamaika entzuteko*. Txolarre irratiaren astean zehar izan denaren inguruko laburbilduma da saioa.
 21:00-20:00. *Sound System* (Molotoff irrati). Besteak beste, musika reggae jorratzen duen saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

URTE ASKOAN

Asier. Datorren Zinemaldirako bizarra txukuntzeko asmorik bai? A, eta saskibaloiko mateak hobetu...

Astakiloen abenturak

8 liburuz osatutako ipuin bilduma

Pataxi, Olegario, Mikel eta Isertxo astakiloen abenturaren gozatuko duzue!

Bernardo Atzagak idatzitak - Marrazkiak: Jokin Mikelena

- 1- Astakiloak Arabian
- 2- Trauslantiko batean
- 3- Astakiloak Finisterre aldean
- 4- Zirku batean
- 5- Manager biboteak
- 6- Astakiloak New Yorken
- 7- Astakiloak Afrikan
- 8- Afrikako zuhaitz txikia

Urriaren 6tik aurrera, larunbatero BERRIAREKINI

+4,5 €

Liburu guztiak erosit gero, astakiloen mendeak bizidunen DVDa oparitzen da. 6 abentura berriz idatu, 60 minutuko iraupena du.

liburuen berri